



**OLATZ GARAMENDI LANDA, OLATZ GARAMENDI LANDA,  
GOBERNANTZA PUBLIKO ETA CONSEJERA DE GOBERNANZA  
AUTOGOBERNU SAILEKO PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO Y  
SAILBURUAK ETA EUSKO SECRETARIA DEL GOBIERNO  
JAURLARITZAKO IDAZKARIAK VASCO**

**EGIAZTATZEN DUT:**

Gobernu Kontseiluak 2021eko urriaren 26an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau onartu zuela:

**CERTIFICO:**

Que el Consejo de Gobierno, en sesión celebrada el día 26 de octubre de 2021, adoptó, entre otros, el siguiente Acuerdo

**ERABAKIA, TRANTSIZIO ENERGETIKORAKO ETA KLIMA-ALDAKETARAKO PLANA 2021-2024 ONARTZEN DUENA.** (2021/01058 ESP.)  
(A/20210332)

**ACUERDO POR EL QUE SE APRUEBA EL PLAN DE TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y CAMBIO CLIMÁTICO 2021-2024.** (EXP.2021/01058) (A/20210332)

Politika publikoen plangintza, duela zenbait legealditak, tresna egoki gisa finkatu da administrazio publikoek ezarri beharreko jarduerak antolatu eta koordinatzeko.

La planificación de las políticas públicas se ha consolidado desde hace ya varias legislaturas como un instrumento adecuado para ordenar y coordinar las actuaciones que corresponde implementar a las Administraciones Públicas.

Arlo horretan, eta gobernu honek gobernu-ekintzaren lehentasuneko arloak definitu ondoren, politika horiei lotutako politika eta plan estrategikoak identifikatu dira, eta horiek dira XII. Legealdi honetarako euskal gizartearen aurrean hartutako konpromisoen muin garrantzitsuena

A este respecto, y una vez definidas por este Gobierno las áreas prioritarias de la acción de gobierno, se han identificado las políticas y planes estratégicos vinculados a tales políticas que conforman el núcleo más relevante de los compromisos adquiridos ante la sociedad vasca para esta XII Legislatura.

Identifikatutako Jaurlartzaren 16 Plan Estratégikoak bat datoaz legegintzaldi honetako Gobernu Programan definitutako lau jarduketa-ardatzekin: Oparotasuna-Pertsonak-Planeta-Autogobernua.

Los 16 Planes Estratégicos del Gobierno identificados se corresponden con los cuatro ejes de actuación definidos en el Programa de Gobierno de esta Legislatura: Prosperidad-Personas-Planeta-Autogobierno.

Era berean, bat datoaz Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Estrategiarekin, Garapen Jasangarrirako Helburuen bost parametroei dagokionez (bost P): People, Prosperity,

Asimismo, están alineados con la estrategia de Desarrollo sostenible de las Naciones Unidas entorno a los cinco parámetros (cinco P) de los Objetivos de Desarrollo Sostenible: People,

Nahi izanez gero, J0D0Z-T36VJ-96DD bilagailua eraedita, dokumentu hau egiazkoan den  
ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <https://euska.eus/lokalizatzalea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador  
J0D0Z-T36VJ-96DD en la sede electrónica <https://euska.eus/lokalizator>



Peace, Partnership, Planet; eta Europa berdeagoa, digitalagoa eta inklusiboagoa eraikitzeko Europar Batasunaren estrategiarekin.

Gobernu Kontseiluak, 2020ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, Jaurlaritzaren 2020-2024 XII. Legegintzaldirako Plan Estratégikoen zerrenda onartza erabaki zuen, bai eta horien orientazio orokorrak eta izapidetzeko prozedura ere. Dokumentu horien artean dago Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Plan Estratégikoa.

2015ean, Nazio Batuek Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) onartu zituzten 2030 Agendaren zati gisa, eta horien bidez pobreziairekin amaitzeko, planeta babesteko eta oparotasuna sortzeko konpromisoa hartu zuten. 13. helburuaren bidez, klima-aldaetaren eta haren ondorioen arloan lan egiteko konpromisoa erakustsi zuten.

Parisko Akordioaren helburu nagusia izan zen batez besteko tenperatura orokorraren igoerak industriaurreko mailekiko 2°C gainditzea saihestea eta gehikuntza hori 1,5°C-ra mugatzeko ahalegin gehigarriak sustatzea. Aipatutako helburua lortzeko, beharrezkotzat jo zen berotegi-efektuko gasen emisioak mugatzea; ildorretan, herrialdeek bost urtean behin berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko helburu individualak aurkeztu behar dituzte, denborarekin anbizioa areagotuz.

Parisko Akordioaren esparruan, 2023an berotegi-efektuko gasen emisio-mailari buruzko hurrengo balantze global handia egingo da, eta 2°C-ko helburuan duen eragina aztertuko da.

Europar Batasunaren testuinguruan, honako arauak daude indarrean: 2018/2001 (EB)

Prosperity, Peace, Partnership, Planet; y con la estrategia de la Unión Europea para construir una Europa más verde, más digital y más inclusiva.

El Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el 15 de diciembre de 2020, acuerda aprobar la relación de Planes Estratégicos del Gobierno para la XII Legislatura 2020-2024, así como las orientaciones generales y el procedimiento de tramitación de los mismos. Entre los citados documentos se encuentra el Plan Estratégico de Transición Energética y Cambio Climático.

En 2015, las Naciones Unidas aprobaron los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) como parte de la Agenda 2030, mediante los que se comprometían a acabar con la pobreza, proteger el planeta y generar prosperidad. A través del objetivo número 13 mostraban el compromiso por trabajar en materia de cambio climático y sus efectos.

El Acuerdo de París se marcó como objetivo fundamental evitar que el incremento de la temperatura media global supere los 2°C respecto a niveles preindustriales y promover esfuerzos adicionales para limitar ese aumento a 1,5°C. Para conseguir el objetivo citado, se consideró necesario limitar las emisiones de gases de efecto invernadero; en este sentido, los países deben presentar sus objetivos individuales de reducción de emisiones de gases de efecto invernadero cada cinco años, incrementando su ambición con el tiempo.

En el marco del Acuerdo de París, en el año 2023 se realizará el primer gran balance global sobre el nivel de emisiones de gases de efecto invernadero y se analizará su repercusión en el objetivo de los 2°C.

En el contexto de la Unión Europea, están en vigor la Directiva (UE) 2018/2001, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 11 de

Direktiba, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2018ko abenduaren 11koa, iturri berritzagarrietatik sortutako energiaren erabilera sustatzeari buruzkoa; 2018/844 (EB) Direktiba, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2018ko maiatzaren 30ekoa, Eriakin energia-eraginkortasunari buruzko 2010/31/EB Direktiba aldatzen duena; eta 2012/27/EB Direktiba, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2012ko urriaren 25ekoa, eraginkortasun energetikoari buruzkoa, 2009/125/EE eta 2010/30/EB Direktibak aldatzen dituena eta 2004/8/EE eta 2006/32/EE Direktibak indargabetzen dituena

2019. urtearen amaieran Europako Itun Berdea iragarri zen. Estrategia horren helburuen artean dago, besteak beste, 2050ean Europar Batasuna klimaren aldetik karbonoan neutroa den lehen kontinentea izatea eta trantsizio energetiko justurako funts bat sortzea

2020ko abenduan, Kontseilu Europarrak berretsi egin zuen emisio garbiak edo Europar Batasunekoak 2030erako gutxienez % 55 murritzeko helburu berria, 1990eko balioekin alderatuta; hau da, 2014an adostutako 2030erako helburua baino % 15 gehiago.

Estatuko ordenamendu jurídicoaren testuinguruan, Klima-aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legea onartu zen. Lege horren xedea da Parisko Akordioa betetzen dela ziurtatzea, ekonomia deskarbonizatzea eta eredu zirkular batera igarotzea erraztea, klima-aldaketaren inpaktuera egokitzea sustatzea eta garapen jasangarriko eredu bat ezartzea, enplegu duina sortzeko eta desberdintasunak murritzten laguntzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoaren testuinguruan, 2015ean Klima Aldaketaren aurkako 2050erako Euskal Estrategia onartu zen helburu hauekin: 2030erako Euskal Autonomia Erkidegoko berotegi-efektuko gasen emisioak

diciembre de 2018, relativa al fomento del uso de energía procedente de fuentes renovables; la Directiva (UE) 2018/844, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 30 de mayo de 2018, por la que se modifica la Directiva 2010/31/UE relativa a la eficiencia energética de los edificios; y la Directiva 2012/27/UE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 25 de octubre de 2012, relativa a la eficiencia energética, por la que se modifican las Directivas 2009/125/CE y 2010/30/UE, y por la que se derogan las Directivas 2004/8/CE y 2006/32/CE.

A finales del año 2019 se anunció el Pacto Verde Europeo, estrategia que tiene, entre otros objetivos, posicionar a la Unión Europea como el primer continente climáticamente neutro en carbono en 2050 y crear un fondo para una transición energética justa.

En diciembre de 2020, el Consejo Europeo refrendó el nuevo objetivo de reducir las emisiones netas o de la Unión Europea en al menos un 55 % para 2030 respecto a los valores de 1990, lo que representa un 15 % más que el objetivo de 2030 acordado en 2014.

En el contexto del ordenamiento jurídico del Estado, se aprobó la Ley 7/2021, de 20 de mayo, de Cambio Climático y Transición Energética, norma que tiene por objeto asegurar el cumplimiento del Acuerdo de París, facilitar la descarbonización de la economía y su transición a un modelo circular, promover la adaptación a los impactos del cambio climático y la implantación de un modelo de desarrollo sostenible que genere empleo decente y contribuya a la reducción de las desigualdades.

En el contexto de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en el año 2015 se aprobó la Estrategia de Cambio Climático 2050 del País Vasco con los siguientes objetivos: reducir las emisiones de gases de efecto invernadero de la

gutxienez %40 murriztea eta, 2005. urteari dagokionez, 2050erako gutxienez %80 murriztea 2050erako; 2050erako energia berritzagarrien kontsumoa azken kontsumoaren %40 izatea lortzea; eta euskal lurrealdearen erresilientzia bermatzea klima-aldaketaren aurrean.

Era berean, 2016an Euskadiko Energia Estrategia 2030 onartu zen..

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak jasangarritasun energetikoaren oinarrizko esparru juridikoa ezartzen du, bai euskal administrazio publikoen eremuan, bai sektore pribatuan. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoa eredu energetiko berri baterantz zuzendu nahi da, aurreztekotako eta eraginkortasunerako neurriak bultzatuko dituena eta energia berritzagarrien erabilera eta mugikortasun jasangarria sustatuko dituena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legea garatzeko eta zehazteko, 2020an Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko azaroaren 10eko 254/2020 Dekretua jarri zen indarrean.

Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketa Plana 2021-2024 dokumentuaren Plana Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Ingurumen Jasangarritasuneko eta Industriako sailburuordetzeak egin dute, haien baitira ekonomiaren eta ingurumenaren jasangarritasuneko politika nagusiak diseinatzeko, planifikatzeko, gauzatzeko eta ebalutzeko arduradun nagusiak, IHOBERen eta EEEren zuzendaritzarekin batera, eta eremu horretan eta euskal gizarte osoan

Comunidad Autónoma de Euskadi en al menos un 40 % a 2030 y en al menos un 80 % a 2050, respecto al año 2005; alcanzar en el año 2050 un consumo de energía renovable del 40 % sobre el consumo final; y asegurar la resiliencia del territorio vasco al cambio climático.

Asimismo, el 2016 se aprobó la Estrategia Energética de Euskadi 2030.

Por otra parte, la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca, establece el marco jurídico básico de la sostenibilidad energética, tanto en el ámbito de las administraciones públicas vascas como en el del sector privado. De esta manera, trata de conducir a la Comunidad Autónoma de Euskadi hacia un nuevo modelo energético que impulse medidas de ahorro y eficiencia y que fomente el uso de las energías renovables y la movilidad sostenible

Con la finalidad de desarrollar y concretar la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca, en 2020 entró en vigor el Decreto 254/2020, de 10 de noviembre, sobre Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca.

El Plan de Transición Energética y Cambio Climático 2021-2024 ha sido elaborado conjuntamente por las Viceconsejerías de Sostenibilidad Ambiental y de Industria del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, como máximos responsables del diseño, planificación, ejecución y evaluación de las principales políticas de sostenibilidad económico-ambientales, con la codirección de IHOBE y EVE, y contando con la participación y opinión de los principales agentes relevantes en este ámbito y de la sociedad vasca en su conjunto.

garrantzitsuak diren eragile nagusien parte-hartzea eta iritzia kontuan hartuta.

Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketa Plana 2021-2024 dokumentua hiru trantsiziori emandako erantzunean jartzen du arreta, eta ekonomia lehiakorra eta jasangarria bultzatzeko eta garatzeko konpromisotik lan egiten du.

Plan honen planteamendua, hiru trantsizioei dagokienez, honako hau da:

- Trantsizio energetiko-klimatikoa, honako hauekin lotutako erronkei heltzeko: klima-aldeketa eta berotze globala, baliabide materialen ekoizpena eta erabilera eraginkorra, biodibertsitatea, baliabide mugatuak egotea, hondakinen kudeaketa eta kutsaduraren murriketa.

- Trantsizio teknologiko-digitala, digitalizazioarekin, automatizazioarekin, eta datuen eskuragarritasunarekin eta erabilera-rekin lotua. Trantsizio hori zeharkako trantsizioa da, jarduera ekonomiko eta zientifiko-teknologiko guztiak indartzen dituena, eta beste bi trantsizioak erraztu behar dituena.

- Trantsizio demografiko-soziala, biztanleriaren zahartzeari lotutako gizarte-erronka handiei aurre egiteko, bai eta pertsonen osasunarekin eta ongizatearekin lotutako jarduera ekonomikoak aukera berriei aurre egiteko ere.

Aldirako Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Plana 2021-2024 dokumentuaren helburuak honako hauek dira:

- Berotegi-efektuko gasen isurketa %30 murriztea.
- Energia berriztagarrien kuota energiarengan azken kontsumoaren % 20 izan dadin lortzea.
- Euskal Iurraldeak klima-aldekaren aurrean eresilientzia izan dezan bermatzea.

El Plan de Transición Energética y Cambio Climático 2021-2024, centra sus esfuerzos en avanzar en la respuesta a tres transiciones, trabajando desde el compromiso para impulsar y desarrollar una economía competitiva y sostenible.

El planteamiento de este Plan con relación a las tres transiciones es el siguiente:

- La transición energético-climática, para abordar los retos relacionados con el cambio climático y el calentamiento global, la producción y el uso eficiente de los recursos materiales, la biodiversidad, la existencia de recursos limitados, la gestión de residuos y la reducción de la contaminación.

- La transición tecnológico-digital, relacionada con la digitalización, la automatización, y el acceso y utilización de los datos. Esta transición es una transición transversal que refuerza todas las actividades económicas y científico-tecnológicas, y que debe facilitar las otras dos transiciones.

- La transición demográfico-social, para afrontar los grandes retos sociales ligados al envejecimiento de la población, así como las nuevas oportunidades de actividades económicas ligadas con la salud y el bienestar de las personas.

Los objetivos del Plan de Transición Energética y Cambio Climático 2021-2024 son los siguientes:

- Reducir en un 30% la emisión de gases de efecto invernadero.
- Lograr que la cuota de energías renovables represente el 20% del consumo final de energía.
- Asegurar la resiliencia del territorio vasco al cambio climático.

Horrez gain, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Plana 2021-2024 dokumentua ezartzeak beste bi helburu lortzen lagunduko du:

- Langabezia % 10etik behera jaistea.
- I+G arloko konbergentzia lortzea Europako batez bestekoarekin.

Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Plana 2021-2024 dokumentua 3 aratz estrategikotan eta 9 jarduketa-ildotan oinarrituta garatzen da, eta 27 lan-eremutan banatzen da.

Plan honek, besteak beste, sinergiak ditu XII. Legegintzaldiko plan estrategiko hauekin:

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2030.
- Industria Garatzeko eta Nazioartekotzko Plan Estrategikoa.
- Etxebitzaren eta Hiri Berrikuntzaren Plan Estrategikoa.
- Osasunaren Plan Estrategikoa
- Ekonomia Zirkularren eta Bioekonomiaren Plan Estrategikoa

Planak Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetzaren eta Nekazaritzako, Arrantzako eta Eliagai Politikako Sailburuordetzaren laguntza izan du. Beste intentsitate-maila batekin, eta Planaren garapenari eta ezarpenari begira, koordinazio estua aurreikusten da Lurralde Plangintza, Etxebitzta eta Garraio Sailarekin, Osasun Sailarekin, Hezkuntza Sailarekin, Lan eta Enplegu Sailarekin eta Lehendakaritzarekin.

Adicionalmente, la implantación del Plan de Transición Energética y Cambio Climático 2021-2024 va a contribuir a otros dos objetivos:

- Reducir el paro por debajo del 10%.
- Lograr la convergencia en I+D con la media europea.

El Plan de Transición Energética y Cambio Climático 2021-2024 se desarrolla en base a 3 ejes estratégicos y 9 líneas de actuación, que se desagregan en 27 ámbitos de trabajo.

Este Plan tiene sinergias, entre otros, con los siguientes planes estratégicos de la XII Legislatura:

- Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación Euskadi 2030.
- Plan Estratégico de Desarrollo Industrial e Internacionalización.
- Plan Estratégico de Vivienda y Regeneración Urbana.
- Plan Estratégico de Salud.
- Plan Estratégico de Economía Circular y Bioeconomía.

El Plan ha contado con la contribución de la Viceconsejería de Tecnología, Innovación y Competitividad y de la Viceconsejería de Agricultura, Pesca y Política Alimentaria. Con otro grado de intensidad, y de cara al desarrollo e implementación del Plan, se prevé una estrecha coordinación con el Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, el Departamento de Salud, el Departamento de Educación, el Departamento de Trabajo y Empleo y Lehendakaritza



Lau urteko plana denez, disciplina anitzekoa eta epe luzeagorako politika estrategikoen esparruan integratua, Jarraipen eta Ebaluazio Sistema diseinatu da, honako elementu hauek dituena:

•Urteko jarraipen-txostenak: Planean aurreikusitako ekimenen aurrerapen- eta gauzatz-maila laburbilduko du urteko jarraipen-txostenak. Horretarako, batetik, Planaren esparruan definitutako ekimen emblemátiken aurrerapena berrikusiko da, eta, bestetik, Planaren jarraipen-adierazleen bilakaeraren azterketa eta ebaluazioa egingo da. Desbideratzeak edo formulazio okerrak identifikatu badira, txostenak beharrezko neurri zuzentzaileak jasoko ditu.

•Jarraipen-adierazleak: sistema honen esparruan, Planaren ildo estrategiko bakoitzak adierazle bat edo batzuk ditu. Adierazle horiek definitzeko, gaur egun dagoen informazioa hartu da kontuan. Horiek guztiak kalitatezko informazioan oinarritzen dira, sendoa, erabilerraza eta Euskadiko energia- eta klima-egoeraren errealtitatea islatzen duena. Bildutako informazio guztia oinarri hartuta, aginte-taula integral bat beteko da, Planaren helburu orokoren betetze-maila zehazteko, hiru adierazle nagusiren bidez.

•Ebaluazioaren azken txostena: azken ebaluazio-txostenak ekimen emblemátiken aurrerapena berrikusiko du eta adierazleen bilakaera ebaluatuko du. Informazio horretatik abiatuta, Planaren emaitzak ebaluatuko dira, helburuen lorpen-maila adieraziz. Horrez gain, ondorioen atal bat erantsiko da, etorkizuneko planetan jarraitu beharreko ildoak laburbilduko dituena eta aurkitutako oztopoak eta ikasitako leizioak identifikatuko dituena.

Debido a que se trata de un Plan de cuatro años, multidisciplinar e integrado en el marco de políticas estratégicas a más largo plazo, se ha diseñado un Sistema de Seguimiento y Evaluación que se compone de los siguientes elementos:

- Informe anual de seguimiento: el informe anual de seguimiento resumirá el grado de avance y ejecución de las iniciativas previstas en el Plan. Para ello, por un lado, se revisará el avance de las iniciativas emblemáticas definidas en el marco del Plan y, por otro lado, se realizará un análisis y evaluación de la evolución de los indicadores de seguimiento del Plan. Si se hubiesen identificado desviaciones o formulaciones erróneas, el informe incluiría las medidas correctoras necesarias.
- Indicadores de seguimiento: en el marco de este sistema cada una de las líneas estratégicas del Plan contiene uno o varios indicadores. Estos indicadores se han definido teniendo en cuenta la información existente en la actualidad. Todos ellos se basan en información de calidad, consistente, de fácil manejo y que refleja la realidad de la situación energética y climática en Euskadi. A partir de toda la información recopilada se cumplimentará un Cuadro de Mando Integral que especifique el grado de cumplimiento de los objetivos generales del Plan a través de cinco indicadores principales.
- Informe final de evaluación: el informe final de evaluación revisará el avance de las iniciativas emblemáticas y evaluará la evolución de los indicadores. A partir de esta información, se evaluarán los resultados del Plan indicando el grado de consecución de los objetivos. Adicionalmente, se incluirá un apartado de conclusiones que resuma las líneas a seguir en futuros planes e identifique los obstáculos encontrados y las lecciones aprendidas.



Dokumentua onartu aurretik, jendaurreko informazioaren eta parte-hartzearen izapidea gauzatu da, Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 15eko Erabakian jasotako txostenak bildu dira, eta Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Batzordearen eta Ingurumenaren Aholku Kontseiluaren txostena eskatu da.

Con carácter previo a la aprobación del documento se ha procedido a sustanciar un trámite de información y participación pública, se han recabado los informes contemplados en el Acuerdo del Consejo de Gobierno de 15 de diciembre de 2020 y se ha sometido al pronunciamiento del Consejo Económico y Social, de la Comisión Ambiental del País Vasco y del Consejo Asesor del Medio Ambiente.

Ondorioz, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren proposamenez, nahitaezko txostenak eskatu eta eztabaibidatu ondoren, Gobernu Kontseiluak hartu du honako

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, habiéndose recabado los informes preceptivos y previa deliberación, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente

## ERABAKIA

**“Lehenik. –** Hitzarmen honen eranskinean jasota dagoen “Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Plana 2021-2024” dokumentua onartzea.

**Bigarrenik. -** Eusko Legebiltzarrera bidaltzea “Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Plana 2021-2024” dokumentua, eta akordio honen edukiaren berri ematea”

## ACUERDO

**“Primero. –** Aprobar el documento “Plan de Transición Energética y Cambio Climático 2021-2024”, que se contempla en el Anexo del presente Acuerdo.

**Segundo. -** Trasladar al Parlamento Vasco el documento “Plan de Transición Energética y Cambio Climático 2021-2024”, e informar del contenido del presente Acuerdo.”

## ERANSKINA

Eta horrela jasota gera dadin eta izan beharreko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau ematen dut, Vitoria-Gasteizen, sinadura digitalaren egunean.

## ANEXO

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación, en Vitoria-Gasteiz, en la fecha de su firma digital.

**ERANSKINA**

## **ERANSKINA**

### **TRANTSIZIO ENERGETIKOAREN ETA ALDAKETA KLIMATIKOAREN PLANA 2021-2024 ONARTZEN DUEN GOBERNU KONTSEILUAREN ERABAKIAREN ERANSKINA.**

#### **1 SARRERA**

*Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako 2021-2024 Plana (PTECC 2021-2024) tresna nagusietako bat da Eusko Jaurlaritzaren XII. legegintzaldiko 2020 – 2024 Gobernu Programaren helburuak lortzeko. Euskadik nazioartean adostutako helburuak betetzeko konpromisoa hartu du, klima aldatzen ari den abiadura murrizten saiatzea eta haren ondorioei erantzuteko gaitasuna handitzeko; izan ere, hainbat eremutan ikus daitezke. Europako hegoaldea eremu kalteberenetako bat da, eta Euskadik klima aldaketaren politikak ezarri ditu ardatz nagusi gisa.*

Plan honen bidez, datozen lau urteetako esparrua ezartzen da klima aldaketaren alderdi guztietan lan egiteko, arintzetik hasita, hau da, berotegi-efektuko gasen (BEG) isuriak murritzetik eta karbono-hustutegiak areagotzetik, energia-estrategia indartzetik, lurrealdea eta biztanleria egokitzeko neurriak aplikatzeraino. Horrela, 2020-2024 Gobernu Programaren III. ardatzaren zati handi bat garatzeko bidea irekitzen da, Planeta, energia eta klima trantsizio justu batean fokatzen dena. Gainera, PTECC 2021-2024 plan integrala da, eta hainbat sektoretan eragiten du; horri esker, beste arlo batzuk ere gara daitezke, hala nola industria, nazioartekotza, ikerketa eta berrikuntza, elikadura eta landa- eta itsasertz-garapena, azpiegiturak eta garraio jasangarria edo hiri-berroneratza, besteak beste, eta enplegua sortzea ahalbidetzen du, lehentasun nagusietako bat. Gainera, pertsonen osasuna babestea Planaren lehentasun gisa ezartzen da. Klima aldaketak egoera zailak sor ditzake, eta funtsezkoa da kontingenzia horietarako prestatutako osasun-sistema bat izatea.

Plan honen gakoetako bat energiaren integrazioa, arintzea eta klima aldaketara egokitzea da. Nazioartek klima aldaketa eta energia-estrategia batera arintzearen aldeko apustua egin du. Euskadik beste pausu bat eman du, eta egokitzapena ere integratu du. Deskarbonizazioaren eta iturri berriztagarrietai oinarritutako energia-subiranotasunerako bidezko trantsizioaren helburua kolektibo ahulenei lagunduko dieten jarduera inklusiboen eskutik joan behar da. Pertsonen zaurgarritasuna murriztea, halaber, funtsezko da klima aldaketak ekar ditzakeen aldaketei eta inpaktuei aurre egiteko

gai izango den gizartea lortzeko. Hiru esparru horiek modu integralean lantzeak aukera ematen du haien arteko sinergiak aprobetxatzeko, modu eraginkorragoan lan egiteko, politiken baterako onurak indartzeko eta, gainera, gaizki egokitzea saihesteko, hau da, gure lurrardearen premien aurka doazen zenbait esparren jarduerak saihesteko.

Horrela, Planak hiru ardatz nagusi ditu: 1. Neutraltasunerako bidea, 2. Erresilientzia areagotuz eta 3. Ekintza klimatikoaren zeharkakotasuna; eta bederatzi jarduketa-ildo. Horiek ekimen emblematicoak jasotzen dituzte, lan-eremu espezifikoetan bildutakoak, hala nola energia berriztagarriak, hiri-berroneratzea edo ekonomia zirkularra; industria, lehen sektorea edo larrialdiak bezalako sektoreetan, edo zeharkako eta beharrezko eremuetan, hala nola berrikuntza edo bidezko trantsizioa. Hala, Planak Gobernu Programaren 2024rako lau helburu lortzen lagunten du nagusiki, horietako bi zuzenean eta beste bi zeharka, eta lurrardearen erresilientzia helburu gehigarri gisa bilatzeko beharra gehitzen du:

Berotegi-efektuko gasen isurketak % 30an murriztea.

Energia berriztagarrien kuota energiaren azken kontsumoaren % 20 izatea lortzea.

EAren klima aldaketarekiko erresilientzia bermatzea.

Langabezia % 10etik behera jaistea.

I+Gko konbergentzia lortzea Europako batez bestekoarekin.

## 2 TESTUINGURU POLITIKO NORMATIBOA

*Atal honen **helburua** da energiari eta Klima aldaketari buruzko testuinguruaren laburpena ematea, eremu makroenetik mikroenera, 2021-2024 Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Planerako garrantzitsua izan daitekeen neurrian.*

### 2.1 NAZIOARTEKO ESPARRUA

Klima aldaketaren erronkan aurrera egiteko, bi jarduketa-ildo nagusi planteatzen dira: arintzea eta egokitzea.

Klima aldaketari buruzko adituen Gobernuarteko Taldearen arabera (IPCC), honela definitzen dira:

**Arintzea:** Klima aldaketaren testuinguruan, berotegi-efektuko gasen (BEG) iturriak murrizteko edo hustubideak handitzeko gizakiaren esku-hartzea da.

**Egokitzea:** Benetako edo proiektatutako klimara eta haren ondorioetara egokitzeko prozesua. Giza sistemetan, egokitzapena kalteak arintzen eta aukerak aprobetxatzen saiatzen da. Sistema naturaletan, gizakiaren esku-hartzeak proiektatutako klimara eta haren ondorioetara egokitzea erraztu dezake.

Ebidentzia zientifikoek urteak daramatzate klima aldaketaren ondorioak minimizatzearen garrantziaz ohartarazten. Ildo horretan, klima aldaketa arintza behin eta berriz hartutako konpromisoa izan da historikoki. Egokitzapenari dagokionez, gero eta gehiago dira hainbat sektorek planteatzen dituzten jarduerak eta estrategiak, fenomeno horren ondorioei aurrea hartzeko eta eragin ditzakeen inpaktuak prebenitzeko edo gutxitzeko, bai eta fenomeno horren ondoriozko aukerak aprobetxatzeko ere.

2015ean, Nazio Batuen Erakundeko herrialdeek Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) onartu zituzten 2030 Agendaren barruan, eta, horien bidez, pobreziairekin amaitzeko, planeta babesteko eta oparotasuna sortzeko konpromisoa hartu zuten. 13. GJHren bidez, klima aldaketaren eta horren ondorioen arloan lan egiteko konpromisoa agertu zuten, 7. GJHrekin batera, plan honi zuzenean lotutako energia eskuragarria eta ez kutsatzailea bermatzeari lotuta. Urte horretatik aurrera, nazioarteko erreferentzia nagusia Parisko Akordioa da. 2016ko azaroan jarri zen indarrean, batez besteko tenperatura globalaren igoera industriaurreko mailekin alderatuta 2 °C-tik gorakoa ez izateko eta igoera hori 1,5 °C-ra mugatzeko ahalegin gehigarriak sustatzeko funtsezko helburuarekin. Horretarako, beharrezkoa da berotegi-efektuko gasen isurketak mugatzea; horretarako, herrialdeek berotegi-efektuko gasen isurketak bost urtean behin murrizteko banakako helburuak aurkeztu behar dituzte, denborarekin haien anbizioa handituz.

Egokitzapenari dagokionez, Parisko Akordioak erresilientzia areagotu eta klima aldaketaren ondorioak gutxituko dituzten estrategien garapena sustatzen du (UNFCCC, 2016), ekintzak arintzearekin lotuz eta abian jartzean parte-hartze maila handituz. Helburu horiek bat dato 2015-2030 aldirako Hondamendi Arriskua Murrizteko Sendai esparruarekin. Esparru horrek zenbait ekintza zehatz eskaintzen dizkie estatu kideei, garapenaren onurak hondamendi arriskuetatik babesteko. Era berean, Biodibertsitatearen Konbentzioaren helburua da hura desagertzen ari den abiadura geldiaraztea, funtsezko baita egokitzapenari eta arintzeari dagokienez. Estrategia horiek guztiak bat dato 2030ekin.

Parisko Akordioaren esparruan, 2023an berotegi-efektuko gasen isurien mailari buruzko lehen balantze global handia egingo da, eta 2 °C-ko helburuan duen eragina aztertuko da. Ekitaldi hori bost urtean behin errepikatuko da.

## 2.2 EUROPAKO ESPARRUA

Europar Batasuna (EB) ekintza klimatikoa gidatzen ari da Parisko gailurra egin aurretik. 2008an, klimari eta energiari buruzko neurri-sorta bat onartu zuen, 2020rako energia berriztagarrien, energia-eraginkortasunaren eta berotegi-efektuko gasen isuriak murriztearen inguruan bete beharreko asmo handiko helburu batzuk jasotzen zituena. 2014an, Europako Batzordeak 2021-2030 Energia eta Klima Aldaketa Politiken esparru berria aurkeztu zuen ("2030 Esparrua"), klimari eta energiari buruzko Europako aurreko paketeari jarraipena emango ziona, eta 2030erako emisioak murrizteko eta energia berriztagarrietarako helburu berriak proposatzen zituena.

2015 eta 2018 artean, eta Europar guztientzako Energia Garbia paketea izeneko akordioaren esparruan, gorantz berrikusi dira energia berriztagarrien eta energia-eraginkortasunaren helburuak. 2016ko azaroan argitaratutako Batzordearen proposamenetan oinarrituta, pakete horrek zortzi legegintza-egintza ditu, besteak beste: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko abenduaren 11ko 2018/2001 Zuzentaraua, iturri berriztagarrietatik sortutako energiaren erabilera sustatzeari buruzkoa; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 30eko 2018/844 EB Zuzentaraua, eraikinen energia-eraginkortasunari buruzko 2010/31/EB Zuzentaraua aldatzen duena, eta energia-eraginkortasunari buruzko 2012/27/EB Zuzentaraua. Dokumentu horiek helburu hauek ezartzen dituzte:

### Europako helburuak 2030erako

- Gutxienez % 40ko murrizketa berotegi-efektuko gasen isurietan, 1990. urtearekin alderatuta<sup>1</sup>.
- Energia berriztagarrien azken kontsumo-kuotaren % 32 gutxienez.
- Gutxienez % 32,5eko hobekuntza efizientzia energetikoan<sup>2</sup>.

<sup>1</sup> Jarraian adierazten den bezala, 2020ko abenduan ehuneko hori % 55era igotzea erabaki da.

<sup>2</sup> Energia aurrezteko helburua, EBren PRIMES 2007 proiekzio-agertokiaren joera-egoerarekin alderatuta

Azken zifren arabera, Europar Batasunak % 24 murriztu ditu berotegi-efektuko gasen isurketak 1990etik 2019ra bitartean, batez ere EBko Emisio Eskubideen Merkataritzako sistemak estalitako sektoreei esker<sup>3</sup>.

Hobekuntza horiek gorabehera, komunitate zientifikoak anbizio handiagoz jokatzeko beharra azpimarratu du. IPCC Taldeak 2018an argitaratutako Global Warming of 1.5 °C txosten bereziak ohartarazten du klima aldaketak 2 °C-ko gehikuntzan izango lituzkeen eraginak 1,5 °C-koak baino askoz handiagoak izango liratekeela, eta agerian uzten du muga hori ez gainditzeko lan egin behar dela.

Testuinguru horretan, 2019. urtearen amaieran, Europako Itun Berdea (Green Deal) iragarri zen, beste helburu batzuen artean, 2050ean Europa klimatikoki karbonoa neutroa den lehen kontinente gisa kokatzea eta energia trantsizio justu baterako funts bat sortzea duen estrategia berri gisa. Itun horrekin batera, ibilbide-orri bat dago, 10 jarduera-eremutan bildutako 50 ekintza biltzen dituena, eta tarteko isurketak murrizteko helburuak areagotzeko deia egiten duena (2030erako). Horrela, 2020ko abenduan, Kontseilu Europarrak berretsi egin du helburu berria, hau da, isurketa garbiak edo Europar Batasunekoak gutxienez % 55ean murriztea 2030erako 1990eko balioekin alderatuta, hau da, 2014an adostutako 2030eko helburua baino % 15 gehiago:

---

<sup>3</sup> Isurketak murrizteko aurrerapausoak, [https://ec.europa.eu/clima/policies/strategies/progress\\_en](https://ec.europa.eu/clima/policies/strategies/progress_en) hemen eskuragarri:

### **Europako Itun Berdea**

- 2030erako berotegi-efektuko gasen isurketak gutxienez % 55ean murriztea, 1990. urtearekin alderatuta.
- Europako Klima Legea.
- 2021erako Erkidegoko erregulazioak eguneratzea, energia berriztagarriei, energia-eraginkortasunari eta emisioen merkataritzari buruzkoak, edo Esfortzuak Trukatzeko Erregelamendua edo Lurraren Erabilerari, Lurraren Erabileraren Aldaketari eta Selbikuntzari buruzko Zuzentaraua (LULUCF, ingelesetik).

Europako Itun Berdeak Europako Klimaren Legea egitea ere eskatzen du. 2020ko martxoan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren erregelamendu-proposamena aurkeztu zen, klima-neutraltasuna lortzeko esparrua ezartzen duena eta 2018/1999 (EB) Erregelamendua ("Europako Klimaren Legea") aldatzen duena, konpromiso horiek legezko betebehar bihurtzeko. Hori eta klimari buruzko gainerako lege-testuak murrizketa-helburu berriekin eguneratuko dira.

Halaber, 2015ean, Europako Batzordeak Energiaren Batasuna izeneko estrategia berri bat abiarazi zuen, bere energia-politikaren hiru helburutan oinarrituta: horniduraren segurtasuna, jasangarritasuna eta lehiakortasuna. Berotegi-efektuko gasen isuriak murrizteko helburua, batez ere, EBko Emisio Eskubideen Merkataritzaren araubidearen, ahalegina banatzeko erregelamenduaren eta estatu kideen isurketak murrizteko helburuen bidez aplikatzen da, bai eta lurraren erabilerari, lurraren erabilera-aldaetari eta basogintzari buruzko erregelamenduaren bidez ere. Emisio Eskubideen Merkataritza (EU ETS, Europar Batasuneko Emisioen Merkataritza Sistema) Europar Batasunak 2005ean bultzatutako sistema da. Sistema horrek muga bat ezartzen du Europar Batasunean berotegi-efektuko gasen isurketen guztizko kopuruan, denborarekin murritzten dena. Sistema horren eraginpean dauden industria-instalazioek beren artean merkaturatu ditzaketen isurketa-eskubideak jasotzen edo erosten dituzte.

Sistema gero eta konplexuagoa da izan dituen implementazio-aldi desberdinaren bidez, eta Europako industria-sektorean isurketak murriztea du helburu beti; besteak beste, elektrizitatea sortzea eta hegazkintza. Horri dagokionez, Europarako Industria Estrategia Berriak neutraltasuna lortzeko anbizioa ere azpimarratzen du, eta garapen digitalak kanpoko inpaktuei aurre egiteko gai den industria iraunkor eta autonomorako duen garrantzia azpimarratzen du.

Beraz, sektore horiek dagoeneko planteatuta dituzte berotegi-efektuko gasen isurketak murrizteko helburuak. Hori dela eta, EBk estatu kideei eskatzen die "sektore lausoak" deritzenetan jar ditzatela indarrak, hau da, EU ETSn sartuta ez daudenetan, hala nola garraioan, hondakinen kudeaketan edo nekazaritzan eta abeltzaintzan. Ildo horretan, nabarmentzekoa da baserritik mahaira bitarteko estrategia, elikadura-sistema bidezkoa, osasungarria eta ingurumena errespetatzen duena lortu nahi duena.

#### **2030erako emisioen helburuen banaketa (% 55era eguneratzeko zain):**

- 2030erako berotegi-efektuko gasen isurketak % 30 murriztea, 1990arekin alderatuta.

EU ETS: % 43 murriztea, 2005arekin alderatuta.

Lausoak (ESD): % 30 murriztea, 2005arekin alderatuta. Helburu lotesleak herrialdeka

Europako energia-politikaren osagai gehigarri bat Energia Segurtasuneko Estrategia da, Europako Batzordeak 2014an abiarazia. Estrategia horren helburua da Europar Batasuneko estatu kideek gas naturalaren eta petrolioaren importazioekiko duten mendekotasun handia murriztea, eta Europako herritar guztientzako energia-hornidura egonkorra bermatzea. Horretarako, estrategiak bat egiten du energia-eraginkortasuna hobetzeko eta 2030erako jomugak lortzeko ahaleginenkin: EBn energia-ekoizpena handitzea bilatzen du, energia-baliabideen herrialde hornitzailen dibertsifikatzea eta, EBko hornidura-eteteei erantzuteko azpiegitura hobetzea, besteak beste.

Egokitzapenari dagokionez, 2021eko otsailean Europako Batzordeak Klima Aldaketara Egokitzeko EBko Estrategia berria onartu zuen, 2013an onartutakoa ordezteko. Estrategia berriaren helburua da gauzatu beharreko jarduerak adimentsuagoak, azkarragoak eta sistemikoagoak izatea, EB Klima aldaketaren inpaktu saihestezinetara egokitzeko prozesua errazteko eta 2050erako klimareniko erresilienteagoa izateko.

### **EBren Klima Aldaketara Egokitzeko Estrategia berriaren helburuak (2021)**

- Egokitzapen adimentsuagoa: arriskuari buruzko datuen eta tresnen kalitatea indartzea, eta ezagutzaren mugak zabaltzea. Climate-ADAPT sustatzea, egokitzapenari buruzko Europako ezagutza-plataforma gisa.
- Dagoeneko sentitzen ari diren eraginetara azkarrago egokitzea.
- Egokitzapen sistematikoagoa, maila guztieta. Bereziki azpimarratzen dira politika makrofiskala, naturan oinarritutako irtenbideak eta tokiko egokitzapena.
- Erresilientzia klimatikorako nazioarteko ekintza areagotzea: nazioarteko finantzaketa handitzea eta informazio-trukeak aprobetxatzea.

Bestalde, nazioartetik *Klimaren eta Energiaren aldeko Alkateen Ituna* ekimena bultzatu da, udalerriek eta tokiko gobernuak energiaren eta klima aldaketaren arloan egiten dituzten ahaleginak bateratzeko. Horrela, atxikitako tokiko gobernuak klima aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko borondatezko konpromisoak hartzen dituzte. Konpromiso horiek 2030erako Klimarako eta Energia Jasangarrirako Ekintza Plan (PACES) baten bidez garatzen dira. Plan horretan, bi urtean behin jarraipena egiteko betebeharrekin egin nahi diren funtsezko ekintzak deskribatzen dira, aurrerapenak eta lortutako helburuak aztertzeko.

## **2.3 ESTATUKO ESPARRUA**

Estatu mailan, klima- eta energia-politikak Europar Batasunaren eragin handia du. Hala, berotegi-efektuko gasen isuriak murrizteko helburuak sektore lausoetara bideratuta daude, eta sektore horiek ez daude araututa Emisio Eskubideen Europako Merkataritzan. Kasu honetan, Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoak (OECC), 2001. urtean sortuak, sektore lausoen ibilbide-orri bat marrazten du helburuak betetzeko, berotegi-efektuko gasen isuriak murrizteko hainbat neurriren bidez<sup>4</sup>:

#### **Estatuko berotegi-efektuko gasen isurketak murrizteko helburu espezifikoak**

- BEG isuri lausoak % 10 murriztea 2020an, 2005. urtearekin alderatuta.

<sup>4</sup>

<https://www.miteco.gob.es/es/cambio-climatico/temas/mitigacion-politicas-y-medidas/definicion-difusos.aspx>

- BEG isuri lausoak % 26 murriztea 2030ean, 2005. urtearekin alderatuta.

Badira, gainera, 2021eko Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko Legea (LCCTE) bezalako legegintza-tresnak, Estatuak 2050erako ekonomia deskarbonizatzen daramatenak, Parisko Akordioan hartutako konpromisoa betez. Horrez gain, 2021-2030 Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratuan (PNIEC) berotegi-efektuko gasen isurketak murrizteko eta 2030ean energia berriztagarriak eta energia-efizientzia ezartzeko helburuak zehazten dira, eta helburu horiek lortzen laguntzeko jarduketa-ildoak deskribatzen dira.

#### **PNIECaren helburuak 2030erako**

- Berotegi-efektuko gasen isurketak % 23 murriztea 1990. urtearekin alderatuta, eta sektore lausoetan % 39 murriztea 2005. urtearekin alderatuta.
- % 42ko energia berriztagarria, azken energiaren guztizko kontsumoaren gainean.
- % 39,5eko hobekuntza energia-eraginkortasunean.
- Iturri berriztagarriekin sortutako elektrizitatearen % 74.

Estatuak badu, halaber, 2050erako Epe Luzerako deskarbonizazio-estrategia, zeinaren bidez anbizio handiagoko helburuak ezartzen baititu urte horretan neutraltasun klimatikoa lortzeko.

#### **Epe luzerako deskarbonizazio-estrategiaren helburuak 2050erako**

- BEG isuriak % 90 murriztea, 1990. urtearekin alderatuta.
- Iturri berriztagarriekin sortutako elektrizitatearen % 100.

Gainera, 2021-2030 Klima Aldaketara Egokitzeko Plan Nazionala (PNACC), 2006-2020 PNACC ordezten duena, klima aldaketak eragindako inpaktuak murrizteko planifikazio nazionaleko tresna

nagusia da. Dokumentu estrategikoa da, nazioarteko konpromiso berriekin bat datorrena eta nazionalde osoko gizartearen eta ekonomiaren eresilientzia areagotu nahi duena. Plan berriak implikatutako eremuak eta eragileak zabaltzen ditu, eta irizpide, helburu eta jarduketa-ildo berri eraginkorragoak eta asmo handiagokoak proposatzen ditu. 18 lan-eremuk eta 81 ekintza-ildok osatzen dute, eta ia espektro sozioekonomiko eta bio-geografiko osoa hartzen du kontuan.

PNACCaren helburuak hurrengoak dira:

#### **PNACCaren helburuak**

- Klimaren behaketa eta proiekzioen eta zerbitzu klimatikoen garapena indartzea.
- Inpaktuei, arriskuei eta egokitzapenari buruzko ezagutza gehiago sortzea eta ezagutza horren transferentzia erraztea.
- Spainiaren klima-arrisku nagusiak identifikatzea eta dagozkion egokitzapen-neurriak ezartzeari.
- Egokitzapena politika publikoetan txertatzea.
- Interesa duten eragile guztien parte-hartzea sustatzea.
- Administrazio-koordinazioa ziurtatzea eta gobernantza indartzea egokitzapenaren arloan.
- Europaren eta nazioartean hartutako konpromisoak Spainian betetzea eta garatzea.
- Egokitzapen-politiken eta -neurrien jarraipena eta ebaluazioa sustatzea.

Bestalde, 2020. urtearen hasieran, Estatuak klima- eta ingurumen-larrialdia deklaratu zuen, komunitate zientifikoaren adostasun orokorrari erantzunez, zeinak premiazko ekintza bat eskatzen baitu ingurumena, osasuna eta herritarren segurtasuna babesteko. Akordio horren bidez, 30 ekintza-ildo garatzeko konpromisoa hartu du Exekutiboak, horietako bost lehenengo 100 egunetan, krisi klimatikoari aurre egiteko eta trantsizio ekologikoak dakartzan onura sozial eta ekonomikoak aprobetxatzeko. Besteak beste, Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko Legea egitea barne dago.

Bestalde, Estatuak 2019-2024 aldirako Energia Pobreziaren Aurkako Estrategia Nazionala du, zaitasunak dituzten biztanleei laguntzen diena, besteak beste, etxearen erosotasun termikoa mantentzeko. Tresna horrek are garrantzi handiagoa izan dezake etorkizun hurbilean.

Europen bezala, estatu mailan ere klima aldaketara egokitzeko plataforma bat dago (AdapteCCa). OECC erakundearen eta Biodiversidad Fundazioaren ekimena da, eta, autonomia-erkidegoetan klima aldaketara egokitzeko ardura duten unitateekin batera, informazioa trukatzeko tresna gisa balio du, inpaktuei, kalteberatasunari eta klima aldaketara egokitzeari buruzko ezagutzei buruzko informazio eguneratua eskuratu nahi duten pertsonen zerbitzura, haren bidezko komunikazioa sustatuz.

## 2.4 EUSKADIKO ESPARRUA

Euskadik ibilbide luzea egin du klima aldaketaren arloko politika aktiboak garatzen. 2008-2012 aldirako Klima Aldaketaren Aurkako Lehen Euskal Planaren ondoren, 2015ean Klima Aldaketaren Aurkako 2050erako Euskal Estrategia argitaratu zuen, KLIMA 2050. Klima aldaketari aurre egiteko tresna propioa, nazioarteko konpromisoekin bat datozen neurriak diseinatuz. 9 helbururen eta 24 jarduketa-ildoren bidez, lehen plangintza aldean sektore anitzeko 70 ekintza aurkeztu dira, arintze-eremuak eta klima aldaketara egokitzekoak barne hartzen dituztenak. KLIMA 2050 Estrategiaren helburuak bat zetozentz garai hartako nazioarteko agenda klimatikoarekin, nahiz eta gaur egun berrikusten ari diren.

### KLIMA 2050 Estrategiaren helburuak

- Euskadiko BEG emisioak murriztea gutxienez % 40ra arte 2030ean eta gutxienez % 80ra arte 2050ean, 2005.urtea oinarri hartuz.
- 2050ean energia berriztagarrien kontsumoa% 40koa izatea azken kontsumoa oinarri hartuz.
- EAren klima aldaketarekiko eresilientzia bermatzea.

Era berean, 2016ko uztailean, orduko Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak Euskadiko Energia Estrategia 2030 (3E2030) onartu zuen. Estrategia horrek energiaren arloko helburuak biltzen ditu zehatz-mehatz:

### **Euskadiko Energia Estrategiaren helburuak 2030erako**

- % 17ko aurrezpena energia primarioan 2016-2030 aldian.
- 2030erako energia berriztagarrien kuotaren % 21a azken kontsumoa.
- Euskal Administrazio Publikoaren instalazioetan energia-kontsumoa % 25a murriztea 10 urteetan.
- Energia berriztagarriak aprobetxatzen dituzten eraikin publikoen % 25.
- Ibilgailu alternatiboak parke mugikorrean eta zerbitzu publikoko flotetan sartzea.
- Ordezko energien % 25eko kuota errepideko garraioan.
- % 40ko hornidura elektrikoa kogenerazio eta berriztagarrien bidez.
- Energiaren arloan ikerketa, garapen teknologiko eta industrialeko lehentasunezko 9 arlo bultzatzea.
- CO<sub>2</sub>ko 3 Mt murriztea, energia-politikako neurrien ondorioz.

Bestalde, arintzearen arloko funtsezko tresnetako bat den aldetik, Euskadik berotegi-efektuko gasen inventarioa egiten du urtero, 2000. urtean lehen aldiz kalkulatu zenetik. Testuinguru horretan, garrantzitsua da nabarmentzea garrantzitsua dela Euskadiko sektore lausoetako berotegi-efektuko gasen isurketak murrizteko ekintzak indartzea. Baliabideen eta hondakinen kudeaketaren esparruan, Euskadik Ekonomia Zirkularren Estrategia du, eta, laster, Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2021-2030 Plana argitaratuko da. Bi plangintzak bat datozen materialen erabilera optimizatzeko eta sortutako hondakinen kopurua murrizteko beharrarekin. 2030erako BPGaren unitate bakoitzeko hondakinen sorrera-tasa % 30 murriztea espero da, 2016rekiko, eta, era berean, produktibitate materiala eta material zirkularren erabilera-tasa % 30 handitzea.

Egokitzapenaren esparruan, eta KLIMA 2050 Estrategiaren esparruan, Euskal Administrazio Publikoak klima aldaketara egokitzeko berrikuntzan eta erakustaldian lagundi duten hainbat proiektu bultzatu ditu "KLIMATEK" deialdiaren bidez, hala nola Euskadirako klima-agertoki erregionalizatuak egiteko proiektuak edo gai espezifikoei buruzko proiektuak, hala nola EGHILUR: Zaurgarritasun hidriko edo OSATU: Bero-boladak eta Osasuna, beste askoren artean.

Testuinguru horretan, 2019ko irailetik, Euskadi LIFE IP URBAN KLIMA 2050 proiektuan ari da lanean. KLIMA 2050 Estrategia hedatzen laguntzeko diseinatutako proiektu handi bat. Proiektu honen esparruan 19,8 milioi euro zuzenean klima-ekintzan inbertitzea espero da, eta horietatik % 51 EBk finantzatuko ditu.

Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Lege Aurreproiektuari dagokionez, zeina prestatzen ari baita, Euskadin beranduenez 2050erako neutraltasun klimatikoa lortzea erraztuko duen esparru juridiko-arauemailea zehaztu nahi da. Horretarako, energia eta klima trantsizio bidezko prozesu bati ekin beharko zaio, eta lurrardeak klima aldaketaren aurrean duen erresilientzia ziurtatu beharko da.

Bestalde, 4/2019 Legeak, Euskadiko jasangarritasun energetikoari buruzkoak, jasangarritasun energetikoaren oinarritzko esparru juridikoa ezartzen du, bai euskal administrazio publikoen eremuan, bai sektore pribatuarenan. Horrela, Euskadi aurrezteko eta efizientziarako neurriak bultzatuko dituen eta energia berriztagarrien erabilera eta mugikortasun jasangarria sustatuko dituen energia-eredu berri baterantz bideratzen saiatzen da. Ildo horretan, egon daitezkeen arau-hutsuneak betetzeko eta 4/2019 Legearen prozedurak eta kontzeptuak zehazteko beharretik abiatuta, 2020an 254/2020 DEKRETUA aurkeztu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa. Dekretu honen helburua da arauan aurreikusitako betebeharren irismena argitzea eta horiek betetzea erraztea, epeak, izapideak eta kontzeptu juridikoak zehatzuz.

Azkenik, azpimarratzeko da Energia Berriztagarrien LAPren izapidezte administratiboa hasi dela, eta hori izan behar dela Euskadin energia berriztagarrien garapen ordenatua ahalbidetuko duen lurralte-plangintzako tresna hamarkada honetarako.


### 3 EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

*Azken urteotan, larrialdi klimatikoaren deklarazioak babestuta, Euskadik nazioarteko komunitate zientifikoarekin bat egin du klima aldaketaren arloan. Klima aldaketa eta energia trantsiziona hainbat ikuspegitatik lantzen dira: arintza, energia eta lurraldearen erresilientzia. Jarraian, Euskadik hiru eremu horietan gaur egun duen egoerari buruzko laburpen txiki bat aurkezten da.*

